

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2006ko martxoaren 29an Udal honetako **Osoko Bilkureak** erabagi hau hartu dauela:

8.- TOKIKO AGENDA 21: BERMEORAKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA ONARTZEA.

Xedea

Bermeoko Udalak, Tokiko Agenda 21 martxan ipinteko prozesuaren barruan, BERMEORAKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 1992an, Rio de Janeiron egin zan Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazinoarteko Konferentzian, Agenda 21, estrategi orokorraren baliabide gisa onartu zan. Tresna honek planetearen degradazioa geldiaraztea lortu nahi dau, ekonomia, gizarte, kultura eta ingurumen politika jasangarriak bultzatuz.

Bigarrena: 2003ko uztailaren 24an, Osoko Bilkureak Bermeo udalerrian Tokiko Agenda 21 onartu eta martxan ipinteko hitzarmena onartu eban.

Hirugarrena: 2003ko azaroaren 26an, Urdaibaiko 20 udalerrietako ordezkariak "URDAIBAI-BUSTURIALDEKO UDALTALDE 21 sortzeko eta honela, Tokiko Agenda 21 eskualde guztian garatzeko hitzarmena ofizialki sinatu eben.

Laugarrena: 2004ko uztailetik aurrera, Urdaibai-Busturialdea Udaltaldea aholkularitza tekniko baten laguntzeagaz Bermeon be Tokiko Agenda 21 prozesua garatzen hasi zan. Eta 2004. urtean "Aalborg-eko gutuna"gaz egin zan moduan, prozesu hau bideratzeko IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLAN bat egin eta ofizialki onartu behar da.

Argudioak

Lehenengoa: Ekintza Plan honen helburua honako hau da: **Bermeo udalerriko udal kudeaketan bai iraunkortasun ekonomikoak, bai gizartekoak zein ingurumenekoak bat datozen irizpideak ezartea.**

Bigarrena: Ekintza Plan hau jada aztertu, osotu eta onartu dabe Herritarren Partaidetzarako Foroak eta Udal Iraunkortasunerako Batzordeak (iraunkortasunagaz zerikusi gehiago daukien udal sailen ordezkari tekniko eta politikoak osotuta).



Hirugarrena: Ekintza Plan hau ofizialki Osoko Bilkureak onartzea ezinbesteko baldintza da Bermeo **Udalsarea 21**ean -Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien sarean- sartu ahal izateko. Foro hau orain hiru urte sortu zan, Tokiko Agenda 21 prozesuan aurreratuen dagozan udalerrien eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak bultzatzeko, eta bai udalerrietako ekintza-planak aplikatzen laguntzeko be.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Osoko Bilkureak:

BAKARRA: BERMEORAKO IRAUNKORATASUNERAKO EKINTZA PLANA onartzea.

Eta holan izan daiten, eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, bere behin betiko onespeneraren menpe dagoala ohartarazota, Bermeon, 2006ko martxoaren 29an.

ONETSIA
ALKATEA

